

## Aresti, poesia, eta finantza ekonomia

Hasieran gizona zen...

Remembrance:

<http://www.scribd.com/doc/57188202/Gabriel-Aresti-remembrance>

Hiru esalditan...

### Poesia.

Lagun batek idatzia.

Gabriel Arestik egin ohi zuen gisan:

- 1) Poesia mailu bat da
- 2) Apur dezagun katea
- 3) Beti paratuko naiz gizonaren alde

### Finantza ekonomia.

- 1) Krisia indizitua izan da, **nahita sortua**
- 2) Europar Batasuna **desastre hutsa da**
- 3) Langabezia: **gizakia da funtsa ez bankuen erreskatea**

Are gehiago, gauza asko daude **HARRI ETA HERRI** liburuan:

- 4) Nire poesia oso merkea da, herriaren ahotik hartu nuen debalde, eta debalde ematen diot herriaren belarriari
- 5) Kaietako tabernetan arno beltza edanen dut aleman ontziari planto egin dioten langileekin
- 6) Dirua kario erosten da mundu honetan
- 7) Nire diruaz beteko dute lapur gaiztuek sakela
- 8) Dirurik ez dagoen egunean ez da gizonik erosiko
- 9) Gizonak erosten dira sagarrak bezala, andreak saltzen dira madariak bezala
- 10) Hemen orok du bere prezioa: eskainduera eta eskatueraren erreinua da hau
- 11) Hemen oro da garbitasuna, langileen andreak beren gizonen izerdiak kentzen baitituzte banko-etxeetako patioetatikan
- 12) Zergatik ez du berdin tratatuko aberatsa eta pobrea? Zergatik premiatuko du berdin etoia eta noblea?

13) Egunero Laudioko kanpandorrea ikusten dudanean, fabriketako tximiniekin konparatzen dut, eta ikusten dut ez dela hain gora, diruak fedeak baino gorago igotzen baitu

eta abar.

Baita **finantza ekonomian** ere:

- 4) Dirurik badago EBZn, **defizit publikoak areagotzeko, kostua zero euro**
- 5) Alemaniako Bundesbank dago, **EBZ-ren atzean**
- 6) EBn euroa oso karu saltzen dute **Alemaniako bankuek**
- 7) Geure diruaz **bankuen erreskatea ordaindu dugu**
- 8) Soldata **gizonaren denbora erostea da, baita emakumearen denbora ere**
- 9) Gizonezkoak eta emakumezkoak langabezian daudenez, **soldatak oso merke dira**
- 10) Hemen merkatua da nagusi, **bera erregulatu eta kontrolatu behar da**
- 11) Garbitasuna? **Bankuak eta etxeak ez dira berdin: bankuetan aberastasuna, etxeetan izerdia**
- 12) Desberdintasunak? **Munduko herrialde guztietan, % 10a aberatsa da, gainontzeko %90a txiroa**
- 13) Fedea? **Neoliberalak diru teoria ortodoxoan sinesten dute, horrela Nobel sarietan, gora igoz, zerua lortzen dute**

eta abar.